

Bost estadioek beste mugarri bat ezarriko dute euskararen historian

Milaka lagun elkartuko dira gaur 17:30etatik aurrera 'Bai euskarari' kanpaina agurtzeko

■ EUSKAL HERRIKO bost estadio nagusiak, San Mames, Anoeta, Agilera, Sadar eta Mendizorrotza, jendez lepo beteko dira gaur *Bai euskarari* kanpainak izan duen oihartzun zabala Euskal Herri osora zabal-

tzeko bozgorailu, pantaila erraldoi eta estadio bakoitzeko ekitaldiak lotuko dituen satellite bidezko emanaldiaren bidez. Zalantzarik gabe, 80.000-90.000 euskaltzalek beste mugarri bat ezarriko dute gaur

euskararen historian. XXI. mendeko akordioak pausoak eman ahala hainbatetan oroitu den mugarria. Jaialdia 17:30etan hasiko da eta ordu eta erdiren buruan amaitu *Hator, hator* doinuarekin. → 10-11

Jaialdiaren datu orokorrak

800 dantzari, 400 kide eta 2000 hurrek osatutako abesbatzak, 150 gaitero eta atabalari, pailazoak...

Estadio bakoitzean zazpi kamera, bi pantaila erraldoi, unitate mugikor bat...

Mendizorrotza
BETAGARRI
GORKA
KNÖRR

Anoeta
KASHBAD
BENITO
LERTXUNDI

Agilera
KING MAFRUNDI
MIKEL
LABOA

Sadar
SKALARIAK
ERRAMUN
MARTIKORENA

San Mames
EXKIXU
NATXO
DE FELIPE



JACOBA MANTEROLA

..... 'Marero'-ren desagertzea

Bilaketa taldeek ez dute batere arrastorik aurkitu

■ PASAIAKO 'MARERO' itsasontziaren arrastorik ez dute aurkitu oraindik. Bilbotik 25 miliara buiaren bat aurkitu zuten, baina atzo Kofradiakoek jakinarazi zuten ez dira *Marero* ontzikoak. Hendaia hondartzan ere arroparen batzuk agertu zirela jakinarazi zuten, baina Jaime Tejedor Kofradiako lehendakariaren esanetan ia ezinezkoa da *Marero*-ko arrantzaleenak izatea. Frantziako salbamendu taldeek atzo eten zituzten bilaketa lanak. Pasaiako ontziek jarraitzeko asmoa dute oraindik, baina gero eta esperantza gutxiago dago. → 12

LIBURUDENDA
OKENDO KALEA, 4
Tel.: 943 42 82 89
DONOSTIA

Hontza

Eta orain
aukerako liburuak
ELKANO, 7

Honetan lekurik ez duen bakarra
ZALANTZA DA.

V40 105 z.p. 3.225.000 PTA

AUTO SUECIA
GIPUZKOARAKO
KONTZESIONARIO OFIZIALA

Jauregi auzoa, 76. (Galarreta frontoia-aren ondoan)
Donostia - Hernani errepidean - Tel.: 33 11 31 - HERNANI

elkarrizketa



RAMON JAUREGI

PSOeko POLITIKA
AUTONOMIKOETARAKO
IDAZKARIA

«Frontismoak frontismoa dakar» → 8-9

politika

■ Zazpi alderdik inoiz ez bezalako neurria eman diote urtarilaren 9ko deialdiari

EAJ, HB, EA, IU, AB, Zutik eta Batzarrek urtarilaren 9rako presoen Euskal Herriratzearen alde deitu duten manifestazioak inoiz ez bezalako esparru zabala hartu du. Antolatzaileen aburuz, «bakea oztopatzen duen probokazio neurtua da presoen sakabanaketa». → 5

■ Barrionuevok eta Verak kartzelara ez itzultzea eskatu diote Konstituzionalari → 6

gizartea

■ Imanol Laspiur euskaltzain eibartarra hil da → 13

nazioartea

■ Kosovo
Tregua hautsi eta armak hartu dituzte ostera ere serbiarrek eta albaniarrek → 20